

EUDELEK UDALETAKO HIRIGINTZA ARLOKO BIRGAITZE-POLITIKEI BURUZKO JARDUNALDIA ANTOLATU DU

Otsailaren 15ean egingo den “Birgaitzea: hirigintzaren erronka politikoa” jardunaldia alkateei eta hirigintza arloko zinegotziei dago zuzenduta, eta Euskadiko Hirigintzaren Birgaitzerako Sozietateen (SUR) babesa dauka.

Helburua birgaitzea nabarmentzea da, hirigintza eraldatzeko eredu berri gisa eta, eraikuntzan izandako krisiaren ostean, sektorea biziberritzeko elementu eragile gisa.

Jardunaldian izango dira Javier Ramos arkitektoa, Etxebizitza Ministerioko idazkari nagusi ohia eta Fundación Arquitectura fundazioaren zuzendari nagusia; eta Xabier Cerdà, Bartzelonako hirigintza-estrategiaren arloko aholkularitza-zerbitzua ematen duen Instituto Cerdà institutuko proiektuen zuzendaria.

EUDELEk, arduradun politikoei zuzendutako trebakuntza-eskaintzaren barruan, udaletako hirigintza arloko birgaitze-politikei buruzko jardunaldia eskainiko du otsailaren 15ean, alkateei eta hirigintzako zinegotziei zuzenduta.

“Birgaitzea: hirigintzaren erronka politikoa” izenburupean antolatuko den jardunaldian, birgaitzeak udaletako hirigintza-politiketan duen gero eta funtzio garrantzitsuagoari buruz hausnartuko da, eta, gainera, krisi ekonomikoaren eta eraikuntza-krisiaren ondorioz, eraikitzetik birgaitzera apurka-apurka igarotzeko beharrezana azpimarratuko da.

Diskurtso politiko bateratua, eta hiria eraldatzeko eredu berria

Etxebizitzaren birgaitzea lehentasunezko lan-ildo gisa hartzen ari da, udal hirigintza-eskumenetatik egin daitezkeen jardueren barruan. Une honetan, udal asko euren plangintza orokorra berrikusten ari dira, 2/2006 lurzorua legera egokitzeko; hori horrela, jardunaldi honetan ikuspuntuak trukatu nahi dira, gai honen inguruko diskurtso politiko bateratua eratzeko.

Eraikinak Birgaitzeko eta Hiria Biziberritzeko EAEko 2010-2013 Plan Estrategikoak nabarmentzen du eraikitako etxebizitza-parkearen bi heren oso zaharkituta daudela eta modernizatu beharra dutela zenbait arlotan: besteak beste, irisgarritasunean, instalazio teknikoetan, eraginkortasun energetikoan, bizigarritasun-baldintzetan eta egonkortasun zein segurtasun baldintzetan.

Egoera hori kontuan hartuta, eta gaur egun sustapenak eta eraikuntzak duten geldialdia dela-eta, hiriaren eraldaketa-eredu posible berria sortzen ari da; bertan, protagonista nagusia dagoeneko eraldatuta dagoen lurzorua izango da, bai eta lehendik eginda dauden eraikinen kalitatea hobetzea ere.

Jardunaldian, hirigintza-politika berri honen zenbait arlo planteatu eta bateratuko dira:

- Eraikita dagoena mantentzeko erantzukizun soziala.
- Inguru zaindu eta birgaituak hobekuntza dakarkio hiriari, kohesioa lortzen baitu.
- Birgaitzearen aldeko apustua, baliabide eskuragarrien (lurzorua eta horri lotutako zerbitzu publikoak) kontsumoa eta eraikuntzari dagozkion ingurumeneko baliabideen kostuak murrizteko apustu gisa. Hori bereziki garrantzitsua da gaur egungoa bezalako egoera ekonomikoan.
- Birgaitze arloko politika aktiboa eta auzoetako politika, kalitate txarreko etxebizitzari aurre egiteko eta dauden eraikinak gutxieneko bizigarritasunera eta hiri-kalitatearen baldintzetara egokitzeko.

- Birgaitzean oinarritutako eraikuntza-sektoreranzko trantsizioa sustatuko duen estrategia globalaren garapenak sektore honen produkzioa berregituratu dezake, lanpostu berriak sortuz.

Hizlariak

Hauek dira jardunaldian parte hartuko duten adituak:

- **Javier Ramos, Etxebizitza Ministerioko idazkari nagusi ohia eta Fundación Arquitectura y Sociedad fundazioaren oraingo zuzendari nagusia**
- **Xabier Cerdá, Instituto Cerdà institutuko proiektuen zuzendaria**

www.eudel.net